INSTITUTO MUNICIPAL DE DEPORTES ERMUA
IMD Ermua / Ermuko UKE
ERMUKO UDAL KIROL ERAKUNDEA

AMPA
CEP Anaitasuna Ikastola LHI
GURASOEN ELKARTEA

AMPA
IES Anaitasuna Ikastola DBHI
GURASOEN ELKARTEA

# Convenio de colaboración para la realización del "Programa de iniciación deportiva a través de actividades multideportivas de deporte escolar" en el municipio de Ermua 2008

***Ermuko Udalerrian "Eskola-kiroleko anitz jardueraren bitartezko kirol-hastapen programa" burutzeko 2008 lankidetza-hitzarmena***

**Marzo 2008**
***2008ko Martxoa***

| | |
|---|---|
| *SARRERA* | INTRODUCCIÓN |
| *I. Xedea* | I. Objeto genérico |
| *II. Asmoen deklarazioa* | II. Declaración de intenciones |
| *KLAUSULAK* | CLAÚSULAS |
| *1. Artikulua. Programaren antolaketa* | Artículo 1. Organización del Programa |
| *2. Artikulua. Programaren koordinatzaileak* | Artículo 2. Coordinadores del Programa |
| *3. Artikulua. Programan inskribatzeko baldintzak* | Artículo 3. Condiciones de inscripción del Programa |
| *4. Artikulua. Programaren edukia* | Artículo 4. Contenido del Programa |
| *5. Artikulua. Jarduera-programa* | Artículo 5. Programa de actividades |
| *6. Artikulua. Ohar orokorrak* | Artículo 6. Observaciones generales |
| *7. Artikulua. Ekonomia-erregimena* | Artículos 7. Régimen Económico |
| *8. Artikulua. Hasiera eta iraupena* | Artículo 8. Comienzo y duración |
| *9. Artikulua. Salaketa* | Artículo 9. Denuncia |
| *10. Artikulua. Auziak* | Artículo 10. Cuestiones litigiosas |

***BILDUTA***

***Ermuan, 2008ko martxoaren 17an.***

*Batetik Miguel Ledesma Piñeiro jauna, Ermuko Udal Kirol Erakundeko Presidenteordea (Ermuko UKE aurrerantzean), udal horren izenean eta ordezkari legez, bere esku dituen ekumenen indarrez,*

*Bestetik, Jesús Sarriugarte Iraeta, CEP Anaitasuna Ikastola LHIko Guraso Elkartearen presidentea, elkarte horren izenean eta ordezkari legez, bere esku dituen eskumenen indarrez,*

*Eta azkenik, Mikel Yarza Agirregomezkorta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko Guraso Elkartearen presidentea, elkarte horren izenean eta ordezkari legez, bere esku dituen eskumenen indarrez*

*Aldeek honako hitzarmena sinatzeko gaitasun jurdiko nahikoa aitortzen diote elkarri eta horretarako,*

***ADIERAZTEN DUTE***

***I. Xedea***

*Honakoa sinatzen duten erakundeek pentsatzen dute eskola-kirola hezkuntza-tresna bat eta hezkuntza-prozesuaren osagai bat dela, eta eskola-adinean egiten den edozein kirol-jarduera fisiko ikaslea maila intelektual, emozional, fisiko eta sozialean desarroilatuko duen hezkuntza integralaren prozesuarekin eta eskola-ikasketekin zuzenean lotuta dagoela. Horregatik, eta kalitatearen parametroak oinarri hartuta, jarduera fisiko eta kirol anitzekoaren praktika jarraitua suspertu nahi dute CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko ikasleen artean.*

*Gainera, ondorengo hiru aspektu oinarrizkoak errespetatuko dituen kirol praktikaren alde daude:*

- *Haur eta gaztetxoei bizi osoan zehar positiboki eragingo dieten kirol esperientziak biziaraziko zaizkie.*

**REUNIDOS**

**En Ermua, a 17 de marzo de 2008.**

De una parte, el Sr. Miguel Ledesma Piñeiro, Vicepresidente del Instituto Municipal de Deportes Ermua (IMD Ermua en adelante), en nombre y representación de la misma en virtud de las atribuciones que tiene conferidas.

De otra parte, el Sr. Jesús Sarriugarte Iraeta, Presidente de la Asociación de Madres y Padres del CEP Anaitasuna Ikastola LHI, en nombre y representación de la misma en virtud de las atribuciones que tiene conferidas.

De otra parte, el Sr. Mikel Yarza Aguirregomezkorta, Presidente de la Asociación de Madres y Padres del IES Anaitasuna Ikastola DBHI, en nombre y representación de la misma en virtud de las atribuciones que tiene conferidas.

Las partes se reconocen mutuamente capacidad jurídica suficiente para suscribir el presente convenio, y a tal efecto,

**EXPONEN**

**I. Objeto genérico**

Que las entidades firmantes defienden que el deporte escolar es una herramienta educativa y un elemento más del proceso educativo, conciben que la práctica de cualquier actividad físico-deportiva en edad escolar está íntimamente relacionada con un proceso de educación integral donde se desarrolle física, intelectual, emocional y socialmente y repercuta en el aprendizaje significativo del escolar, por lo que desean promover la iniciación en la práctica continuada de la actividad física y deportiva con carácter polideportivo bajo unos parámetros de calidad entre los/as alumnos/as del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y IES Anaitasuna Ikastola DBHI.

Además, propugnan una práctica deportiva que conlleve el más escrupuloso respeto a tres aspectos fundamentales:

- Debe hacerse vivir a los/as niños/as y jóvenes experiencias deportivas que les influyan positivamente para toda la vida.

- *Haur eta gaztetxoen osasuna, segurtasuna eta ongizatea irakasle/entrenatzaile eta gurasoen helburuen gainetik edo ikastetxe zein taldeen prestigioaren urretik jarriko dira.*

- La salud, la seguridad y el bienestar de los/as niños/as y adolescentes son prioritarios sobre las aspiraciones personales de profesores/entrenadores, y sobre el prestigio de los centros escolares, de los clubes y de los propios padres y las madres.

- *Haurrak ez dira inola ere heldu txikiak bailiran tratatuko eta hezkuntza-prozedura ororen gune-gunean izango dira.*

- Debe evitarse, por encima de todo, el tratar a los/as niños/as como si fueran pequeños adultos y se les debe situar en el centro de todo proceso educativo.

*Halaber, hezkuntza osoaren oinarrizko osagai legez, diziplina anitzeko ezagutzak izan beharra aldarrikatzen dute, hortaz, oinarrizko eredu-motorrak sortzeko funtsezkoa da haurren garapen-prozesuei behar bezala egokitutako gaitasunak eta trebeziak lortzea.*

Proclaman, asimismo, como componente básico de la educación integral, la necesidad de conocimientos multidisciplinares, donde la adquisición de múltiples habilidades y destrezas, adecuadamente adaptadas a los procesos del desarrollo de los/as niños/as, es algo fundamental para la creación de los patrones motores básicos.

*Azkenik, kirol anitzeko jarduera hezkuntza osoarentzat egokia dela pentsatzen dute, mesedegarria delako kirol-kultura suspertzeko, trebakuntza fisikoarentzat lagungarria eta, behar denean, kirol-errendimendua lortzeko onuragarria. Suposatzekoa da, beraz, kirol aniztasuna jardueraren eremu orotan garatu behar dela: kirol-hastapeneko prozesuetan, eskola-umeei kirol-mota ezberdinetako ezagutza teknikoak eskuratzeko aukera emanez, eta lehiaketetan, kirol-hastapeneko prozesuetan lortutako ezagutzak praktikan jartzea ahalabidetuz.*

Finalmente, consideran que la actividad polideportiva es adecuada a la educación integral, ya que contribuye a la cultura deportiva, ayuda a la formación física y, su caso, facilita el acceso al rendimiento deportivo. Es entendible, además, que la polideportividad debe desarrollarse en todos los ámbitos de la actividad: en los procesos de iniciación deportiva, facilitando a los escolares la posibilidad de adquirir conocimientos técnicos de diferentes modalidades deportivas, y, también, en la competición, posibilitando la puesta en práctica de los conocimientos adquiridos en los procesos de iniciación deportiva.

## *II. Asmoen deklarazioa*

*Horregatik guztiagatik parte hartzen duten erakundeek ondorengo klausulen araberako hitzarmen bat sinatu nahi dutela:*

## II. Declaración de intenciones

Que por todo lo anterior, los organismos participantes desean suscribir un convenio con arreglo a las siguientes cláusulas:

## ***KLAUSULAK***

### *1. Artikulua. Programaren antolaketa*

*1. Ermua Udal Kirol Erakundeak (aurrerantzean Ermuko UKE) "Eskola-kiroleko anitz jardueraren bitartezko Kirol-hastapen programa" jardunean jarriko du, CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteekin elkarlanean, zeina Ermuko UKEk berak emango duen bere instalazioetan edo parte hartu nahi duten ikastetxeen edozein kirol-instalaziotan.*

## **CLAÚSULAS**

### Artículo 1. Organización del Programa

1. El Instituto Municipal de Deportes de Ermua (IMD Ermua en adelante) establecerá un "Programa de iniciación deportiva a través de actividades multideportivas de Deporte Escolar" en coordinación con las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI, para ser impartido por el propio IMD Ermua en sus instalaciones, así como en cualquiera de los espacios deportivos de los centros escolares que estén dispuestos a tal fin.

*2. Aspektu didaktiko, metodologiko eta pedagogiko oro, Ermuko UKEk, CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteekin batera zehaztua izango da.*

*3. Ermuko UKEk teknikoki gidatutako saio guztiak euskaraz izango dira eta Ermuko kirol-taldeen lankidetzaz programatutako saioak ere bai, ahal izanez gero.*

*4. Ermuko UKErena izango da entrenamenduen orduak ezarteko ardura, beti ere CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteek eskatutakoari jarraituz. Ahal izanez gero, aukeran, Ermuko UKEren instalazioak erabiliko dira entrenamenduetarako.*

*5. Entrenamenduak M. A. Blanco Udal Kiroldegiko kirol anitzeko pistan egingo dira asteazkenetan 16:30etik 17:30era.*

*6. Hasieran behintzat, entrenamendu guztiak Ermuko UKEren instalazioetan egitea proposatzen da.*

*7. Programa 2008 otsailaren 20an hasi eta ekainaren 18an amaituko da.*

*8. Ekainaren 18an bi orduko saio bat egingo da, programari amaiera emateko.*

*9. Partaide guztiak daude ekainaren 21ean Betiondoko Kirolgunean izango den eskola-kiroleko festara gonbidatua.*

*10. "Eskola-kiroleko anitz jardueraren bitartezko Kirol-hastapen programan" parte hartzen dutenek lehentasuna izango dute Ermuko UKEk ekainaren 23tik uztailaren 15era antolatzen duen "Kirolaz Blai" Udako Kanpainan izena emateko.*

***2. Artikulua. Programaren koordinatzaileak***

2. Todo aspecto didáctico, metodológico y pedagógico será el especificado por el IMD Ermua junto con las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI.

3. Todas las sesiones que estén dirigidas técnicamente por el IMD Ermua serán impartidas en Euskera. Las sesiones que estén programadas con la colaboración de los clubes deportivos de Ermua se realizarán preferentemente en Euskera.

4. El IMD Ermua será la responsable de establecer los horarios de los entrenamientos en base a la petición realizada por las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI. Se priorizará la utilización de los espacios deportivos de las instalaciones del IMD Ermua para el desarrollo de los entrenamientos.

5. Los entrenamientos tendrán lugar en la Pista Polideportiva del Polideportivo Municipal M. A. Blanco, los miércoles de 16:30 a 17:30 horas.

6. De inicio, se propone que todos los entrenamientos se realicen en las instalaciones del IMD Ermua.

7. El programa se iniciará el 20 de febrero y finalizará el 18 de junio de 2008.

8. El día 18 de junio, se realizará una sesión de dos horas de duración para finalizar el programa.

9. Todos los participantes quedan invitados a participar en la fiesta del deporte escolar que se va a organizar el día 21 de junio en el Complejo Deportivo Betiondo.

10. Los participantes en el "Programa de iniciación deportiva a través de actividades multideportivas de Deporte Escolar" tendrán preferencia de inscripción en la Campaña de Verano "Kirolaz Blai" organizado por el IMD Ermua entre el 23 de junio y el 15 de julio.

**Artículo 2. Coordinadores del Programa**

*1. Programaren antolaketa- eta gainbegiratze-lanetarako erakunde arduradun bakoitzak koordinatzaile bat izendatuko du. Ermuko UKEren aldetik Teknikari Kirol Koordinatzailea arituko da eginkizun horretan eta CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteetatik horien ordezkariak, solaskide bakarrak hemendik aurrera.*

*2. Koordinatzaileek urtero aurkeztuko dituzte beharrezkotzat ematen dituzten aldaketak edo, bidezkoa bada, berrikuntza-proposamena, dagokion organoak onets ditzan.*

***3. Artikulua. Programan inskribatzeko baldintzak.***

*1. "Eskola-kiroleko anitz jardueraren bitartezko Kirol-hastapen programan" parte hartu nahi dutenek bakoitzaren ikastetxean egingo dute eskabidea (CEP Anaitasuna Ikastola LHI edo IES Anaitasuna Ikastola DBHI). Ikastetxea izango da partaideen eskabidea onartu edo ukatuko duena, programan ezarritako onarpen-irizpideei jarraituta.*

*2. Onartutako partaideek, honako hitzarmen-markoaren baitan eta ikasketa-aldia hasi aurretik, programaren inskripzioa formalizatzeko behar diren tramite administratibo guztiak beteko dituzte ikastetxe bakoitzean. Ikastetxean eskolatuta ez dagoen ikasle bat programan sartu ala ez erabakitzea CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteen esku izango da.*

*3. Partaide kopurua gehienez 15 haurrekoa izango da talde bakoitzeko.*

*4. Partaideak Ermuko UKEko abonatuak beharko dute izan. Hori horrela, baldintza hori betetzen ez dutenek guraso elkarteen eginkizunetatik aparte gestionatu beharko dute programa hasi baino lehen Ermua abonatu izateko eskabidea UKEren bulegoetan, eta ezingo dute programaren baitako jardueretan parte hartu abonatu moduan alta eman aurretik.*

1. A los efectos de organización y supervisión de las actividades del Programa, cada uno de los organismos responsables nombrará un Coordinador que habrá de ser, por parte del IMD Ermua, el Técnico Coordinador Deportivo y, por las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI, su persona delegada, que actuará, en lo sucesivo, en calidad de interlocutor único.

2. Los coordinadores propondrán anualmente para su aprobación por los órganos encargados del desarrollo del Programa, las modificaciones que consideren oportunas, así como, si procede, la propuesta de renovación correspondiente.

**Artículo 3. Condiciones de inscripción del Programa**

1. Toda persona que desee participar en el "Programa de iniciación deportiva a través de actividades multideportivas de Deporte Escolar", deberá solicitar su admisión en el centro escolar que corresponda (CEP Anaitasuna Ikastola LHI o IES Anaitasuna Ikastola DBHI). Será el citado órgano quien aceptará la solicitud de los participantes, o la denegará, en base a los criterios de admisión que establezca el citado Programa.

2. Los participantes aceptados deberán, en el marco del presente convenio y con anterioridad al inicio del periodo lectivo, cumplimentar en la sede de cada centro escolar cuantos trámites administrativos sean precisos para la formalización de su inscripción en el Programa. La inclusión o no de un alumno ajeno al centro escolar en el Programa queda a expensas de lo que las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y IES Anaitasuna Ikastola DBHI determinen.

3. El número máximo de participantes por grupo será de 15 niños/as.

4. Las personas participantes deben ser abonados/as al IMD Ermua. Para ello, las personas participantes que no ostenten esta condición, deberán gestionar independientemente de las AMPA's su solicitud de alta como abonado/a en las oficinas del IMD Ermua, previo al inicio del programa, no pudiendo participar en las actividades mientras no haya realizado el alta correspondiente.

*5. Partaideei, Ermuko UKEren Zerbitzuen Arautegian indarrean diren arau guztiak aplikatuko zaizkie programaren partaide diren unetik bertatik.*

5. Las personas participantes, desde su condición de participantes en el Programa, les será de aplicación toda la normativa vigente en el Reglamento de Servicios del IMD Ermua.

*6. Zeregin administratiboetarako, Ermuko UKEren datu-base informatikoan sartua izango da partaidea, eta erakunde horrek egingo ditu programan alta emateko gestioak.*

6. La persona participante se incluirá a efectos administrativos en la base de datos informática del IMD Ermua, que se encargará de gestionar su alta en el Programa.

### *4. Programaren edukia*

### Artículo 4. Contenido del Programa

*1. Hainbat xede landuko dira JOLASaren bitartez: gorputzaren ezagutza, gorputz-adierazpena, berdinen arteko harremanak, osasuna eta higienea eta beste hainbat.*

1. A través del JUEGO se trabajarán diferentes objetivos: conocimiento del cuerpo, expresión corporal, relacionarse entre iguales, salud e higiene y otras muchas.

### *5. Artikulua. Jarduera-programa*

### Artículo 5. Programa de actividades

| KIROL JOLASAK LH1 ETA 2 | | | |
|---|---|---|---|
| | **Actividad** *Jarduera* | **Lugar** *Tokia* | **Dirigido por** *Nork zuzendua* |
| **Otsaila** | | | |
| **20** | Herri Kirolak | M. A. BLANCO | |
| **27** | Hockey | M. A. BLANCO | |
| **Martxoa** | | | |
| **5** | Euskal Pilota | ARITZMENDI | C. D. DE PELOTA VASCA |
| **12** | Patinaia | M. A. BLANCO | |
| **Apirila** | | | |
| **2** | Tiro con Arco | IKASTOLA | C. D. DE TIRO CON ARCO |
| **9** | Nin Jitsu | M. A. BLANCO | |
| **16** | Atletismo | BETIONDO | ATLETISMO ERMUA |
| **23** | Joku eta jolas tradizionalak | M. A. BLANCO | |
| **30** | Aerobic | M. A. BLANCO | |
| **Maiatza** | | | |
| **7** | Txirrindularitza | BETIONDO | ERMUKO TXIRRINDULARI |
| **14** | Minibalonmano | BETIONDO | ERROTABARRI |
| **21** | Minibasket | BETIONDO | ERMUA BASKET |
| **28** | Futbol 5 | BETIONDO | SALTXAILEAK |

| **Ekaina** | | |
|---|---|---|
| **4** | Orientazioa | BETIONDO |
| **11** | Igeriketa | M. A. BLANCO |
| **18** | Kirolaz Blai + Ur Jolasak | M. A. BLANCO |
| **21** | Eskola Kirola Jaia Betiondon | BETIONDO |
| **Ekaina - Uztaila** | | |
| **23 - 15** | *Kirolaz Blai Udako Kanpaina* | M. A. BLANCO<br>BETIONDO<br>IRTEERAK |

### *6. Artikulua. Ohar orokorrak*

*1. Entrenamenduetara joatea derrigorrezkoa izango da kirol guztien kasuan,*

*2. Programan parte hartzen duten ikasle guztiek txandala edo kirola egiteko jantzi egokiak erabili beharko dituzte.*

*3. Uretako jarduerak egin ahal izateko, partaideek bainurako jantzi egokiak izango dituzte.*

*4. Patinatzeko, partaide bakoitzak bere patinak ekarri beharko ditu.*

*5. "Eskola-kiroleko anitz jardueraren bitartezko Kirol-hastapen programa"ren baitako jarduera guztiak Ermuko UKEren erantzukizun zibileko aseguruak babestuta daude.*

### *7. Artikulua. Ekonomia-erregimena*

*1. 2008ko otsailetik aurrera Ermuko UKEk ehun eta hogeita lau euro eta bost zentimoko (124,05 euroko) tarifa globala egotziko du hilean talde eta orduko, programa egiteagatik.*

*2. CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteek banku-helbideratze datuak eman beharko dizkiote Ermuko UKEri, hileko fakturazioa egin ahal izateko.*

*3. Hileko banku-helbideratzeak Ermuko UKEk jaulkitako faktura sortuko du CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteen izenean.*

### Artículo 6. Observaciones generales

1. La asistencia a los entrenamientos es obligatoria en todos los deportes.

2. Será de carácter obligatorio la utilización del chándal o de ropa deportiva para todos aquellos alumnos/as que vayan a disfrutar del programa.

3. Todas las actividades de carácter acuático requerirán que los participantes estén equipados con ropa adecuada para el baño.

4. La actividad de patinaje requerirá que los participantes traigan sus propios patines.

5. Todas las actividades realizadas dentro del "Programa de iniciación deportiva a través de actividades multideportivas de Deporte Escolar", están cubiertas por el seguro de responsabilidad civil del IMD Ermua.

### Artículo 7. Régimen Económico

1. Desde el mes de febrero de 2008, el IMD Ermua imputará una tarifa global por grupo y hora al mes que asciende a los ciento veinticuatro euros y 5 céntimos (124,05 euros) en concepto de la realización del Programa.

2. Las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI deberán facilitar los datos de domiciliación bancaria para que el IMD Ermua pueda realizar la facturación mensual.

3. La domiciliación bancaria mensual generará la correspondiente factura a nombre y cargo de las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI emitida por el IMD Ermua.

*4. Fakturazioaren datak honakoak izango dira:*

- *2008ko martxoaren 5ean, otsaila eta martxoko fakturazioa.*
- *2008ko apirilaren 5ean: apirileko fakturazioa.*
- *2008ko maiatzaren 5ean: maiatzeko fakturazioa.*
- *2008ko ekainaren 5ean: ekaineko fakturazioa.*

4. Las fechas de facturación serán las siguientes:

- Día 5 de marzo de 2008: facturación mensual meses febrero y marzo.
- Día 5 de abril de 2008: facturación mensual mes de abril.
- Día 5 de mayo de 2008: facturación mensual mes de mayo.
- Día 5 de junio de 2008: facturación mensual mes de junio.

***8. Artikulua. Hasiera eta iraupena***

*1. Honako hitzarmenaren indarraldia 2008ko otsailaren 1ean hasi eta urte bereko ekainaren 30ean amaituko da.*

*2. Programak aktibo dirauen bitartean honako hitzarmena luzatu egin ahal izango da, programazio teknikoa eta dagozkion tarifak Ermuko UKEren teknikariek proposatutako parametroen arabera eguneratu ondoren eta, beti ere CEP Anaitasuna Ikastola LHIko eta IES Anaitasuna Ikastola DBHIko guraso elkarteekin adostu ondoren.*

*3. Guraso elkarteei aplikatuko zaizkien tarifaren gehikuntzak ez du Ermua Hiriko Udalaren Udal Batzarrak onetsitako tarifen bataz besteko ehunekoa gaindituko, kontratazioaren baldintzak aldatzen ez badira (programazio teknikoa, instalazioak, monitoreak, jardueren edukia...)*

*4. 2008ko irailetik aurrera Programaren Jarraipen Batzordearen esku egongo da taldeek Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako "Multiltikirola" programaren baitan parte hartuko duten ala ez erabakitzea.*

**Artículo 8. Comienzo y duración**

1. La vigencia del presente Convenio comienza el 1 de febrero de 2008 y finaliza el próximo 30 de junio del mismo año.

2. Este convenio podrá prorrogarse, siempre que se mantenga activo el Programa, actualizando la programación técnica y la correspondiente tarifa de acuerdo a los parámetros propuestos por el personal técnico del IMD Ermua y que deberá ser acordado con las AMPA's del CEP Anaitasuna Ikastola LHI y del IES Anaitasuna Ikastola DBHI cada vez que se realice el mismo.

3. El incremento de la tarifa aplicada a las AMPA´s no puede superar la subida porcentual media de las tarifas aprobadas por el Pleno Municipal del Excmo. Ayuntamiento de la Villa de Ermua, salvo que varien algunas de las condiciones de contratación (programación técnica, instalaciones, monitores, contenido de la actividad, etc.).

4. A partir de septiembre de 2008, la Comisión de Seguimiento del Programa será la encargada de determinar la participación o no de los grupos dentro del Programa "Multikirola" organizado por la Diputación Foral de Bizkaia.

***9. Artikulua. Salaketa***

*1. Aldeetako edozeinek honako hitzarmen hau salatu edo parte hartzeko konpromisoa eten dezake, hitzarmena eten nahi den dataren edo, hala denean, berori luzatu baino hiru hilabete aurretik beste partaideari idatziz jakinaraziz.*

**Artículo 9. Denuncia**

1. Cualquiera de las partes podrá denunciar el presente convenio, o rescindir su compromiso de participación, comunicándolo a la otra parte interviniente por escrito, con tres meses de antelación a la fecha en la que se desee la terminación del mismo o, en su caso, de su prórroga.

*2. Nolanahi ere, aldeek salaketa jakinarazten den unean jada hasita dauden ekintzak amaitzeko konpromisoa hartzen dute, honako hitzarmenaren bosgarren klausulan zehaztutako aldian zehar.*

2. En cualquier caso, las partes se comprometen a finalizar el desarrollo de las acciones ya iniciadas en momento de notificación de la denuncia, durante el período de tiempo especificado en la cláusula quinta del presente convenio.

*3. Aldeak akordio batera iritsi ezean Ermuko UKEk izango du erabakitzeko ahalmena.*

3. Si las partes no llegaran a un acuerdo, el IMD Ermua dispondrá de la potestad de decisión al respecto.

***10. Artikulua. Auziak***

**Artículo 10. Cuestiones litigiosas**

*1. Hitzarmen hau interpretatu, garatu, arrazoitu, eten eta aplikatzean sor litezkeen eraginen gaineko desadostasunak honako hitzarmenean araututako Batzorde Koordinatzaileak konponduko ditu.*

1. Las discrepancias surgidas sobre la interpretación, desarrollo, motivación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación del presente convenio, deberán de solventarse por la Comisión Coordinadora regulada en el presente convenio.

*2. Eta, adostasunaren adierazgarri moduan, hitzartutako guztia jasota gera dadin, aldeek honako hitzarmena sinatzen dute goian adierazitako toki eta egunean.*

2. Y, en prueba de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, las partes firman el presente Convenio, en el lugar y fecha al principio indicados.

| POR EL INSTITUTO MUNICIPAL DE DEPORTES ERMUA<br>***ERMUA UDAL KIROL ERAKUNDEAtik*** | POR EL AMPA CEP ANAITASUNA IKASTOLA<br>**LHI*ko GURASOEN ELKARTEtik*** | POR EL AMPA IES ANAITASUNA IKASTOLA<br>**DBHI*ko GURASOEN ELKARTEtik*** |
|---|---|---|
| **D. Miguel Ledesma Piñeiro *jn.*** | **D. Jesús Sarriugarte Iraeta *jn.*** | **D. Mikel Yarza Aguirregomezkorta *jn.*** |